

## KulturAraba Bulegoak bere atepak irekitzen ditu berriro Arabako kultur sektoreko kideei aholkuak emateko

Vitoria-Gasteizko Udalak eta Laboral Kutxak bat egiten dute Aldundiarekin proiektu honi jarraipena emateko

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 11a.** Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Laboral Kutxak ***KulturAraba Bulegoa*** kultura erakundeei eta profesional autonomoei informazioa eta laguntza emateko zerbitzuarekin jarraitzea itundu dute. Zerbitzu hori proiektu pilotu gisa jarri zuen abian iaz Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak.

Programa pilotu horrekin Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren (2017-2020) *Kultura Erakundeak Sendotzeko eta Modernizatze*ko Programaren lehentasunezko ekintzetako bat abian jartzen zen.

Horrela, hilabete batzuetan zehar bulego honek erantzuna eman die kultur proiektu bat martxan jartzen denean sortzen diren galderei. Pilotu fase honetan 38 kultura agente hurbildu dira bulegora 58 kontsulta egiteko. Agente gehienak Vitoria-Gasteizetik heldu dira, baina baita beste leku batzuetatik ere. Kontsulente ehuneko 60 bulegoan bertan egin dira, ehuneko 24a interneten bide eta 16a telefonoz.

Zenbaki hauek kontuan izanda, hiru erakundeek jarraipena emateko bildu dira.

Gasteizko Udala, ekimen horren bidez, jarraitu egiten du garatzen tokiko sorkuntzaren alde egiteko lan ildoan, zeina jasota baitago Kulturaren Plan Estrategikoan 2018-2020 eta lehentasunezko helburu baitu tokiko kulturaren prestakuntza, sormena, ekoizpena eta berrikuntza sustatzea.

Laboral Kutxa proiektu honetara biltzen da bere ezagupenak eta aholkularitza eskainiz, Gaztenpresa Fundazioaren bidez, kultura ekimen ekintzaile berriei. Izan ere, fundazio horren helburua da gure ingurunean enplegua sustatzea,

idea sortzen denetik finantzatzen den arte laguntza emanda eta sorkuntza bakoitzari aholkularitza pertsonalizatua eskainita.

Azken batean, lurraldeko bi erakunde publiko nagusien kultura politiken arloko estrategiak biltzen dira, berriro ere, **KulturAraba Bulegoan**. Eta oraingoa erakunde pribatua batuta, ilusioz betetako agertoki bat datorkigu aurrera, enpresa bokazioa duten sormen eta kultura ekimenen ekintzailatza, berrikuntza eta babes arloko lankidetzak publiko-pribatuarena.

### Zer da KulturAraba Bulegoa?

- Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Konderriko kultura sektorean lan egiten duten pertsonen eta erakundeen argibideak eta laguntza emateko bulegoa da.
- Aholkularitza gune bat da, kultura eta sormen sektorearen behar informatiboak erantzuteko eta sektore hori sendotzeko eta modernizatzeko.

### Nori dago zuzenduta KulturAraba Bulegoa?

- Kultura eta sormen arloko enpresei.
- Sektoreko profesional autonomoak.
- Kultura elkarteak eta erakundeak.
- Kultura arloko ekimenak eta proiektuak dituzten pertsonen, edozein fasean egonik ere.
- Kulturarekin lotutako diziplinetako ikasleak eta ikertzaileak.

### Zer eskaintzen du KulturAraba Bulegoak?

- Kultura eta sormen proiektuak garatzearekin lotutako dirulaguntzei, deialdiei eta hainbat konturi buruzko informazioa (finantza, prestakuntza, fiskalitatea eta legeak, espazio baliabideak ...)
- Sektoreko eragileei **laguntzea** beren eguneroko jarduerarekin eta kultura proiektuak garatzearekin zerkusian duten gaitan.
- **Sektorea dinamizatzea**, eta testuinguruak sortzea errazago izateko sareak egitea eta proiektuak aurrera eramateko ezaupideak edo inspirazioa.
- **Taldearen osaera hau izango da:**
  - Laguntza prozesuak erraztu eta erabiltzaileek eskatutako gaiak erantzuteko dien pertsona bat.
  - Zerga eta lan arloko pertsona aditu bat.
  - Disziplina anitzeko talde bat, KulturArabak sustatutako dituen hileroko topaketak dinamizatzeaz arduratutako dena.

### **Nola jaso KulturAraba Bulegoko zerbitzuak?**

- **Bulegora bertara joanez. Helbidea:** Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea 5, Gasteiz. Astelehen, astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 14:00etara eta asteazkenetan 16:00etatik 20:00etara.
- **Posta elektronikoko bidez:** [kulturaraba@araba.eus](mailto:kulturaraba@araba.eus)
- **Sare sozialez bidez:** #kulturaraba traola erabilia
- **Telefonoz:** 945 18 19 92